

6.BEZEROEKIN HARREMANA

Galea Vitae proiektuaren helburua da bezeroak erakarri, fidelizatu eta epe luzera mantentzea, beraien esperientzia ahalik eta aberatsen eta eraginkorren bihurtuz. Horretarako, bezeroarekiko harreman mota desberdinak konbinatuko ditugu, produktuaren izaerara eta gure publikoaren beharrera egokituta.

1. Nola erakarriko ditugu bezero berriak

Marketin kanpaina digitalak (Instagram, TikTok, web-orriaren SEO optimizazioa), kolaborazioak osasun- eta ongizate-arloan lan egiten duten profesionalekin (fisioterapeutak, nutrizionistak, entrenatzaileak). Doako saio eta tailerrak eskolak, udal ekipamenduak eta kiroldegietan eta probako harpidetza mugatuak lehen hilabetean deskontuarekin.

Helburua da marka ezagutzera ematea, lehen hurbilketa erraztuz eta interes-puntuak aktibatuz.

2. Nola mantendu eta fidelizatu bezeroak

Bezeroa mantentzea funtsezkoa da hazkunde iraunkorra lortzeko. Horretarako:

Eduki eksklusiboa eta pertsonalizatua harpidetza dutenentzat, hilabeteko jarraipen pertsonalizatua eta lorpenen ebaluazioa, gamifikazio-sistema: puntuak, erronkak eta sariak. Newsletter baliagarria: aholkuak, elikadura-planak, ariketa berriak. Erosketa ondorengo jarraipena eta feedback bilketa etengabea.

Bezeroak sentiarazi nahi ditugu proiektuaren parte direla, ez soilik erabiltzaile hutsak.

3. Galea Vitaek erabiliko dituen harreman motak

Laguntza pertsonala: Bezeroei arreta zuzena eskaintzea email, telefono edo hitzordu bidez. Zalantzak konpontzeko eta bideratzeko.

Laguntza pertsonal eksklusiboa: Premium harpidetza kontratatzen dutenek coach pertsonal bat izango dute, jarraipeneko hileko sesioekin.

Autozerbitzua: Plataforma digitalaren bidez erabiltzaileak bere kabuz planak ikusi, egutegia antolatu eta errutina pertsonalizatuak eskuratu ahal izango ditu.

Zerbitzu automatizatuak: Adimen artifizialak osatutako planak, ohitura-erregistroa eta errendimenduaren jarraipen automatikoa.

Komunitateak: Discord edo foro propio batean erabiltzaileek esperientziak partekatu, elkarren motibazioa sendotu eta erronkak osatu.

4. Bezeroak gure sisteman nola integratuko ditugu

Bezeroak gure web edo aplikazioaren bidez erregistratuko dira, hasierako galdetegi pertsonalizatua betez. Datu horien arabera sistema automatikoak plan egokitua sortuko du, eta erabiltzaileak bere profilean entrenamenduak, dietak eta jarraipena kudeatu ahal izango ditu. Harpidetza edo ordainketa bakarra egin ondoren, plataforman sartzeko aukera izango dute modu jarraituan

BEZEROEN-HARREMANAK



BIBLIOGRAFIA:

- García,B.-Tena, D.-Bernabeu, M^a E.- López, C. (2025). Itinerario personal para la empleabilidad. TULIBRODEFP.
- STARTINNOVA plataformako materiala.
- <http://blog.hubspot.es/sales/modelo-canvas>
- Logoa: <http://www.chatgpt.com>
- Argazkia: <http://www.chatgpt.com>
- [Bezeroekin harremana hobetzeko aholkuak - Ekion](#)